

KARMEL

VIII^{GN.} URTEA.

LAUGARREN ATALA

(LARREA - ZORNOTZA)

Decor Carmeli

Aldikada baten etzan ezer munduan. Eta gero, zer guztiak —izar, itxaso, mendi, lora, txori, ibar— Jaun Goikoak sortu ebazan bere indar utsez. Eta Aren eskuetatik urtena oro ederra, bikaina, osoa zan.

Ederra zan nunbait Paradisua, atsegin-sorta. Egiz atsegin-loku, ez negar, ez gaixo, ez bildur, ez zaartzte, ez eriotz...

Ederra da zeru goia, egunez urrezko zuzi aundiz sutan, eta zidar-argontzi zurbillez gau ordu luzeetan...

Ederra amaren maitasuna, kuma ertzean auzpez aurtxo txikia mosukatzean...

Ederra gazte biren alkarganako ondo-nai ezta...

Oraindik, baiña, ederrago Andra Maria, Karmen'go Ama, betidanik eder ta lilluragarria.

Jainkoa zan bakarrik. Zeru-gingana etzan izarrik, Aren dirdai-iragarle; loreak ez eban aize meia

usaintzen; etzan txori-kantarik sagasti ta orri artean; urik ez etorren mendi-beera, ixurki zalapartariak egiñik. Jainkoa zan bakarrik. Baiña ez egoan bakar ta soil be: Beragan eukan bizi ugaria, sortzeko ziran izakiak oro Beragan egozan, eta atsegin yakozan guztiok. Baiña guztion artean, oso yakon bat atsegin: Andra Maria, oso ederra, zoragarria.

Zugur idaztian onela: «Jaunak, bere ninduan, lenengo burubideetan, oraindik ezer egin baiña len. Zeruak zabaltzean antxe nengoan; lezeak arau jakiñez eta ago-ezpanez inguratzean; lur gaiñean eguratsa marmintzean, eta iturriak neurritz ezartean; itxasoari mugak ipintean, eta lurrari oiñarria emotean» (Prov., VIII, 22-29).

O Karmen'go Ama eder! Betidanik Jainkoaren atsegin eta aldian gure Ama! Lagun zakiguz munduko ezbear ta estuasunetan.